

# Oratoria, akatsak, itzulpengintza eta kalkoak

KARLOS DEL OLMO

*Besteen mintzoan beti hutsak bilatzen dabiltzan euskaltzaleak kaltegarri dira.* (L. Mitxelena)

*Ustelkeria gehienak hizkuntzarenetik hasten dira.* (George Orwell)

*Inoiz aldatzen ez den hizkuntza, hilerrian baino ez da erabiliko.* (Lazaro Carreter)

## 1.- *Araua eta erabilera edo "Ez dago akatsik gabeko hiztunik"*

Oso ezaguna izan arren, ezer baino lehen gogora dezagun Saussurek esan zuela "ezer ez da hizkuntzara helduko lehendik hizketan saiatu ez bada". Erabateko garbizaletasunetik guztizko utzikierarako ibilbidean, hamaikatxo urrats eman daitezke eta beste horrenbeste jokabideri eutsi. Garbizaleen aburuz, hizkuntza beti egoten da arriskuan: jakina, eurek ahoz eta —gehien bat— idatziz darabiltena. Denak-balio-du-tarren iritziz, dena erlatiboa da, erabiltzen den guztia baliagarria, beraz, hizkuntzaren mekanismoak aztertzeak ez du zentzurik. Lehenengo ustez, beren arauak betetzen ez dituztenak ezjakin hutsak dira; bestetuzen arabera, haien hizkuntz erabilerak aztertzen dituztenak sudurluze eta txirri-porroak.

Linguistikaren ikuspegitik, euskara, espainiera edo beste ezein hizkuntza deuseztatzea

hutsaren hurrengoa da, baina ez da berdin gertatzen soziolinguistikaren aldetik. Nolanahi ere den, hizkuntzek heltzen zaizkien oldeak bere egiteko ahalmena izan ohi dute eta, normalean, ez dira horregatik hiltzen, aurrera ateratzen baino. Hizkuntza bateko gramatika legeak uste baino indartsuagoak eta aldagaitzagoak dira, baina moldatze indarren jabe ere badira.

Askotan, kontua hizkuntz intolerantzia izaten da, beste intolerantzia batzuk salatzen dituen aldetik. Jakina, hiztun arruntak ez du jakiterik boladan dauden esamoldeetatik zerk iraugo duen eta zerk berez iraugo. Hizkuntza lanbide duenak, komunikatzaileak (oraingo terminologiaren arabera), gogoetak eman behar dituztenean, sarri askotan terminoen matazan korapilatzen da eta, azken buruan, hari horiekin mezua jaso behar duena ere lotuko du, azkenik, gauzak argitu beharrean, guztiz iluntzeko.

Garbizaletasuna, erlatibismoa ala artez eta denok ulertzeko moduan berba egin eta idaztea? Euskarari gagozkiola, auzia ez da lur-dikeen bezain erraza, ezta hurrik eman ere, garbizale aldiak izaten baitira lantzean behin.

Soziolinguistikak edozein berbaera *diasistematzat* jotzen du: elkarren artean erlazionaturiko azpisistema batzuk biltzen dituen hizkuntz egitura. Horrela, euskararen diasistemak administrazio hizkera, euskalkiak, komunikabideetako euskara, lagunartekoa eta beste (?) hizkuntz azpisistema batzuk hartuko ditu barne. Azpisistemei *erregistro* edo *arau* esanez gero, hizkuntza erregistro edo arau sistema izango da. Ondorioz, hiztun guztiek, benetan, "hizkera" ugari erabiltzen dituzte, baina ez berberak: abokatu bizkaitar "goi mailako" alfabetatua, Zuberoako artzain alfabetatugabea eta arabar maisu euskaldun berria ezaugarri batzuk direla eta baino ez dira kide izango. Soziolinguistikak agerian jartzen duenez, denok hainbat gutxiengoren partaide gara.

Baliteke, beraz, zuzentasuna kontzeptu erlatiboa izatea, zein arau mota darabilgun hizpide. Eta gertatzez hala balitz, ez ote genuke kontu handiagoz ibili beharko, zer gerta ere? Auzia, azken buruan, "akatsa" zein arauen arabera den ebatzea litzateke.

Hizkuntza ospetsu eta normaldu guztiek erreferentzi erregistro bat izaten dute, oinarri moduan elkarren antza handia duten hauetariko bat hartuta:

- a) Erregistro landua
- b) Akademiaren erregistroa
- c) Literatur erregistroa
- d) Erregistro estandarra
- e) Erregistro urrakorra

Arau urratze guztiak ez dira munta berekoak izango, arau mota guztiek indar berdina ez dutenez gero. Erregistro landua hiztun guztiek erreferentzi arautzat izaten dute, a) botere sozial edo politikoa duen gizarte taldearena delako; b) erregistro hori darabilen dialekto gizalde hori bizi den lurraldean hiririk garrantzitsuenak edo botere politikoaren erakundeak daudelako, eta c) literatur ekan-duan oinarrituriko idazkera izan ohi duelako. Antza denez, euskarari gagozkiola, den-dena betetzen ote diren zalantza egin daiteke. Maiz arau "landu" horrek desegokitzat jo ditzake lagunarteko arauan ohiko diren esamolde batzuk.

Akademiaren erregistroak berez dakar hizkuntz arautze edo behartze bat, beste erregistro batzuk gaitzesten diren aldetik. Ikusi besterik ez dago zer jazo den euskalki batzuekin batua eratu zenean. Baina hizkuntz aldaki batek —soziala, euskalkia, lanbidekoa— beren beregi ezer ez du besteen gainetik jar dezakeenik. Diasistemaren aldetik, akademiak gaitzetsitakoa ez da hobetsia baino hobe. Askotan, kalitatea baino, kantitatea edo maiztasuna hartzen da oinarri erabakitzerakoan. Erregistro mota hau irakaskuntzan derrigorrezkoa izan daiteke.

Literatur arauari "desarau" ere esan daikioke: literatur idazketaren artifiziotasuna —sormenaren ondorioz da eta— eguneroko ahozko erabilera arruntaren kontrakarrean dagoenetik. Maiz, gainera, idazleak gramatika eta hiztegia hausten ditu. Guztiagaz ere, eredu erregistro honek literatur kanon bat du oinarri, literaturatzat jotako idazlan —batez ere klasikoak— guztien meta, eta corpus horixe darabil ohiko gramatika adibideak eta ereduak emateko. Ondorioa: ahoz inork

erabiltzen ez duen hizkuntza "historiko" bat proposatzen du.

Erregistro estandarra neutroena da. Erregistro bat estandar edo orokor bihurtzen da gizarte itun baten ondorioz eta, ondorioz, hizkuntz gizarteak hizkuntz erabilera batzuk onartzen ditu eta besteak gaitzetsi. Askotan, jakina, erabakia elite batek hartzen du, hiztunak alde batera utzita. Erregistro estandarra halakoa izaten da ia irakaskuntzan baino erabiltzen ez delako. Ikasleei luzaro irakasten zaienez gero, herri alfabetatuetan gehienon erregistro bihurtu ohi da. Elkartzaila da, hizkuntz diasistemaren iraupena segurtatzen duela. Bestalde, zeregin politiko-administratiboa izaten du, *hizkuntza ofiziala* termino politikoaren zeregina betetzen duenez gero, alegia, politika erakundeek darabilten aldaki soziolinguistikoa. Ez dirudi, alta, erregistro estandar hori denik politikari euskaldunek darabiltena.

Erreferentzi erregistroa urrakorra da. Eredutu soziolinguistikoko horrekin erkatzen dira gainontzeko guztiak egokitzen zer jotzen den eta zer ez esateko garaian. Erreferentziak ere horren arabera, "kogidu", "lanean dabil" edo "gatxaudek" ez dira egokitzen jotzen. Bestela esanda, *aldaketa linguistikoa badihardu halako sinkronia jakin batean ospetsu den eredu soziolinguistikoa urratuta, hautsita*. Eta hizkuntzaren bizi iraupena, maiz, aldatu eta moldatzeko gaitasunaren menpean izaten da.

Erregistro diatopikoei gagozkiela, normailean hizkuntza bateko aldaki guztiek, batek izan ezik, urratzen dute erreferentzi erregistroa. Zer dela eta? Erreferentzi erregistroa aldaki baten "sublimazioa" dela eta. Ohiz, erreferentzi erregistroak eraikitzen dira politika eta ekonomi boterearen gune diren lu-

rraldeetako aldakiaren gainean. Berdin jokatu da euskararekin? Nork bere erantzuna eman beza!

Saussuren dikotomieei eutsita, zuzentasuna, akatsa, araua eta antzeko kontzeptuak diakronian aldakorak direla esan behar dugu. Bestalde, erreferentzi araua erregistroen arteko liskar baten ondorioa da, kontraktarean jardun ohi baitute harreman dialektiko batean ospe soziolinguistikoa duten ereduak eta horiei boterea kendu nahi dieten erregistroek.

Erregistro diastratikoa oinarri, gizarte erregistroek erreferentzi erregistroarekiko izan dezaketen tartea gizarte desberdintasunak, adina, sexua eta antzeko faktoreen arabera izango dira. Alegia, erreferentziakoa egiten dute agintean daudenek eta unibertsitarioek —gizonezkoek bereziki— eta halako gazte ez direnek onartu ohi dute, nahiz eta beti erabiltzen ez duten. Oro har, agintarien klasekoak ez direnek, unibertsitarioak ez direnek, gazteenek eta emakumeek erreferentzi ereditutik urrunduta hitz egiteko isuria dute.

Lanbide edo jakintza alor batekoek darabilten erregistroari diafasiko esaten zaio. Erreferentzi erregistroa, batez ere, intelektualek, idazleek eta funtzionarioek eraiki ohi dute eta beste eremu batean dihardutenek hizkuntz erabilera bereziak (lexikoak gehien bat) sortzen dituzte, estandarretik urrunduta. Zenbaterainoko tartea utzita? Nondik eta datorren, denborak ere garrantzia izango du urruntasun hori mugatzerakoan: erregistro diafasiko juridikoak lexiko eta sintaxi arkaismo ugariak erabiliko ditu, informatikoak neologismoak...

Eta hau dena aztertuta, esan besterik ez dugu eguneroko hizkuntz erabileretan, *hiz-*

*tun guztiek erreferentzi erregistroa urratzen dutela, besteak beste, erregistro hori jomuga, helburu, asmo hutsa delako.*

Hiztunak, hala ere, ez dira jabetzen beren arau urratzeaz, nahiz eta besterenaz ondo baino hobeto konturatu. Nabarmen-nabarmena gertatzen da besteren akatsak zuzentzen dihardutenen hanka sartzeak, munta handiagokoak, "pulpitutik" lau haizetara berri ona aldarrikatzen dutelako. Zertan esanik ez, artikulu honetan adierazi berri dugunaren adibide bat baino gehiago idoroko du langintzari eutsiko dionak. Ajeek, zelan edo halan, denak ajeatzen gaituzte, bestela ezin baitaiteke. Baina aitortzea besterik da!

Hiztun gizalde guztietan hainbat aldaki soziolinguistiko bizi dira elkarrekin eta elkarren aurka, batera. Zein da arazoa? Aniztasuna. Eguneroko bizitzan nonahi eta noiznahi agertzen den aniztasun hori negatibotzat jo ohi da abstraktu, utopiko eta ukroniko den batasun irizpide baten izenean.

Metonimia balitz legez, erreferentzi erregistroa hizkuntza osotzat jotzen da eta, ondorioz, gramatikak, metodoak, hiztegiak, eskuliburuak eta abarrak erreferentzi erregistroan oinarrituriko abstrakzioak baino ez dira. Jakina, erregistro horregaz bat ez datorrena, "ez da" eta kito.



## 2.- Euskara mordoiloa edo euskara garbia ala "iruzur klasikoa"

Arau urratzearen eta akatsaren harroinean hiru zergatiko topa daitezke: "iruzur klasikoa", gramatika arauemailea eta literatura zein testu idatzia itzal soziolinguistikorik handieneko erregistro bihurtzea.

"Iruzur klasikoa" esaten zaio K. a. III. mendean alexandriar filologoen finkaturiko gramatika joerari: a) idatzia ahozkoa baino goragokoa da eta eredu izan behar du ondo hitz egin eta idazteari dagokienez; b) gramatikak berriaz arautu behar du nola hitz egin eta idatzi egokiro, literatura klasikoaren moldeen arabera; c) hizkuntzaren bilakaerak eta aldakien sorrerak endekatzea dakarte, testu zaharren eredu klasikoetatik aldentzen direnez gero. Askotan, gaur egungo euskaldun arauemaile askoren jokabidearen euskarri aipatu iruzurra dago.

Bestalde, gramatikariak, aurreko iruzurra bereganatuta, zentsuran ari izan dira, gramatika arau eta debeku multzotzat jo baitute. Gramatikak ez du deskribatu edo azaldu jendeak darabilen hizkuntza: jendeari proposatu eta inposatu diote hitz egiteko eredu bat.

Jokabide arau-emaile horri gehitu behar zaio idatzia eredu ospetsu bihurtua. Ondorioz, hiztunek literatura imitatu behar dute. Baina ez da ahaztu behar ahozkoa gizaki guztiek berezko duten gaitasun biologikoa dela. Idatzia ez. Hala ere, mintzamina bigarren mailan utzi nahi dute.

Saussuerek esan zuenez, hizkuntza ahozko ekoizpenean aztertu behar da, baina idatziz sortua ia beti garaitzen da. Ohiko gramatikak idatzikoaren alde bat, literatura, baino ez du aztertzen, baina literatura azpi-sistema diafasiko bat baino ez da eta, horre-

lakoa den aldetik, ahozko sistematik beste edozein sistema idatzi baino areago urrun-tzen da, batez ere poesian.

Ondorioz, kontraesan horiek guztiek bi ikuspegi sortzen dituzte: garbizalea eta errealista. Biek, halaber, bi isuri izan ohi dituzte: akademiaren aldekoa eta akademiaren aurkakoa, jokabide arau-emailea eta jokabide liberala ondorio.

Hiztun askok, eta zoritxarrez euskaltzain ugarik ere, jokabide arauemaileari eusten diote hizkuntzari dagokionez. Batzuen iritziz, "lehen beti onena" da, hirugarren alexandriar arauaren ildotik. Baina: pentsamolde horrek, zein erantzun eman diezaioke galdera honi? Garbiagoa omen zen lehenaldi hori, zein lehenaldi da? Noizkoa? Zein aldakirena?

Baina azkenean; beste gertaera bat ere ahazten dute: hizkuntza bizi guztiak aldakorak dira, hildakoak bat ere aldatzen ez direlarik, lehenaldi ideal batean baitiraute. Erreakzionarismo garbizaleak kontraesan ebazten gaitz bat aldarrikatzen du, hots, hizkuntza defendatzen omen du, baina aldagaitza nahi duenez gero, hizkuntza hila defendatzen du, alegia, maite omen duenaren heriotza.

Zeinen urrun dauden horrelako jarrerak hizkuntza izaki bizitzat jotzen dutenetatik, hizkuntza zuhaitza litzatekeela, eta hitzak hostoak, etengabe hil eta jaiotzen.

Jarrera garbizale horiek ikuspegi arka-dikoa dute, hizkuntzaren lehenaldi ideala baserri aldaki kutsatu gabea eta ukronikoa litzatekeelarik. Baserria —artzaina— eta hiri —kaletarra—, kontrakarrean. Baina segur aski ez da halakorik gertatzen, baserri-itar nekezale onaren hizkuntz erregistro arka-dikoa eta kaletarrarena aldiberekoak ez iza-

tea baizik. Artzainaren erregistroa ez da garbiagoa, beste erregistro soziolinguistiko bat baino. Baliteke, hori bai, hasian-hasi elkarki ez ulertzea, baina jazoera noiznahikoa da hizkuntzetan. Hizkuntz aldakien arteko harremanak beti izaten dira dialektikoak. Pentsatzekoa da, guztiarekin ere, benetako artzainen eta balitekeelako artzain bukolikoaren artean ere ederreko tartea dela.

Gainera, hizkuntz fundamentalismo horren beste alde bat jokabide zentsura zalea da. Zer eta nola esan behar den inposatu nahi du, benetan zer erabiltzen den ahaztuta. Bigarren alexandriar aurreiritzia. Zentsoreak kosta ahala kosta emango dio aurpegia hizkuntza biziari, hizkuntz aldaketa eta berearen aurkako jokabideak defendatzen dituztenak gutxiesten ahaleginduko delarik.

Akademikoak, hainbat euskaltzale tarte, beti egon ohi dira hizkuntzaren lehenaldiari begira: akademiak berak xedaturiko gramatikatik eta lexikotik desbideratzea desegokia da. Eta hara hor kontraesana: lagunarteko hizkerak, aldakiak, lanbide hizketak eta abar-rrak, berez, beti izaten dira arau-urratzaile samarrak.

Ondorioz, gramatikaria heretikoen mailua izango da.

Eta hortxe letorke hizkuntz sena. Garbizaleen iritziz, akademiaren eta jakintsuen arau- ez bat egingo luke. Jakina, aldagaitza litzateke ileetatik behatzetaraino. Baina, tamalez, sen horrek tentuz jardun ohi du eta urteak joan urteak etorri, moldatuz eta egokitu-tuz doa.

Horrelako jarrerak ondorio bakarrekoak dira: hizkuntza defendatu beharra dago. Nola defendatu, ordea, hizkuntzaren birjintasuna? Borrokak bi erpin kontrako ditu: akatsak zuzendu eta garbitzea, zeregin kualitatiboak

dira, nolakotasunen kontua. Aldiz, bizirau-pena kuantitatiboa da, hizkuntzaren eragin eremuak ahalik eta gehien hedatzea. Baina nekeza da oso kalitateak eta kantitateak elkar hartzea hizkuntz kontuetan. *Horren guztia- ren ondorioa gordin bezain irensten gaitz ger- tatzten zaie batzuei, beren sabeletako "ixegos- keta" delikatuak direla eta: hizkuntza hedatu nahiak berez dakar erantsirik aldaketaren ha- zia eta, azken buruan, suntsiketa bera.*

### 3.- Arau urratzea, gauzatu doan hizkuntz aldaketaren ikurra

Egia esan, akatsak arau soziolinguistikoa eta arau landua elkarren aurka daudela erakutsi ez ezik, segur aski oraindik guztiz gauzatu ez den hizkuntz aldaketaren bat ger- tatzten ari dela agertzen ere du. Aldaketa guz- tiz sendotzen den arren, arauemaileek dese- gokitzat joko dituzte, guztiarekin ere. Azken buruan, arkadismo akademizista beti izaten da hizkuntz mudantzaren beldur, hizkuntza birrinduko delakoan.

Baina, senperrenak eta bi eginda ere, ez dago hizkuntza baten esparrua guztiz zeda- rrituko duenik: *hizkuntz aldaketaren indarra handiagoa da hizkuntz garbizaletasunarena baino.*

Garbizaleak kexu dira erabilera batzuek hizkuntza jipoitzen dutelako. Baina hizkun- tza ezin da jipoitu, eurek uste baino indar- tsuagoa delako. Ez, zer edo zer zigortzeko- tan, gramatika arauak jipoitzen dira, ez hiz- kuntza bera. Eta "izurriterik" izatekotan, aldaketa finkatu den seinale ageri eta: arau urraketa arau bilakatu da.

Ezbairik gabe, pentsamenduzko jarrera bat ezin da defendatu ezjakintasuna eta

inkoherentzia oinarri. Baina garbizale ba- tzuek etengabe dihardute mendiratzen eta matxinatzen (*to machine*, ingelesez), harako apaiz ezagun haren antzera, gurutzada berri bati ekiteko prest. Higikune "santu" horrek eskatzen badu joskera berezi eta mugatu bat orokortzeko edo berba bat inposatzeko, ondo etorri, errealitatea makurrarazita, euren ideala egiaztatutzat joko dute eta.

Gutziz bestaldean, beste jarrera bat, hiz- kuntza erregistro sorta gisa aztertzen duena, bai zientziaren tresnez aztertzeko, bai hiz- kuntz laxotasuna aldarrikatzeko. Egiten utzi, hitz egiten utzi.

Zientzi jokamolde horren ondorioz, ana- lisi filologiko eta linguistikoak hizkuntz az- pisisistemen arteko talka harremana hizkuntz aldaketaren eragiletzat joko du, bestela esan- da, hizkuntzaren eragile moduan. Hizkun- tza gizartearen ispilua da. Baina batzuei ez ei zaie gustatzen bizi duten gizartea eta hizkuntz ereduaz batera, gizarte eredu bat ere inposatu nahi dute, antza. Gizarte bateko ohiturak aldatzen badira, hitz edo esamolde batzuk bazterrerara botako dira eta berriak sortuko. Gizartea bera txikitzen ez bada bideoa asma- tu delako, zergatik birrinduko da hizkuntza hitz edo esamolde edo joskera berria dato- rrenean? Baliteke inork ez jakitea euskararen hizkuntz jatorria non den (axola ote du?), baina erratu gabe esan daiteke hurrengo mendeotako euskarak eta gaurkoak elkarren antza txikia izango dutela, baina euskarak euskara iraungo duela. Biziaz herioa zor du, baita hizkuntzak ere. Zibilizazio osoak suntsitu dira, baina gizadia ez da desagertu, bi- zia etengabe moldatzen delako. Hizkuntzek ezin iraun dezakete moldamena galduz gero.

*Polisaren muina* aniztasuna da eta hiz- kuntz aferetan besteon hizkuntz erabilerekiko

begirunea ekarri behar luke ondorioz. Hizkuntzaren zaindari peto-petoez hizkuntza endekatze izugarritik babestu nahi dute, baina, maiz, elkarbizitzaren oinarritzko arauak edo besteri zor zaion begirunea ahaztuta.

Gizarte guztiak, berez, jakintsu dira eta larregizko aldaketak horren izatea bera kaltezen hasten direnean, barne baliabide batzuk abiarazten dituzte dena bere senera itzultzen dadin. Maiz hizkuntz garbizaletasunak hegoak moztu nahi dizkie gizalderik eragileenei, txukuntasuna, naturaltasuna eta antzeko argudioak baliatuta edo demaseko izugarrikeriak leporatuta, euskalkien edo aldakien gainean pezeta baten iritziak jaurtikitzen ez dituztenean. Nork bere burua ikusten duenean egia absolutuaren jabe, oso erraza da zurrin bihurtzea besterekiko eta gogoeta aldagaitz, agintzaile eta anakronikoen zerrenda botatzen jardutea. Hizkuntza gutxitu edo gutxiaraziei gagozkielarik, errazagoa da hizkuntzaren salbazioa (odol) garbitasunean ikustea.

Jakina, bi pentsamolde horiek —garbizalea eta errealista— muturreko jarrerak eragiten dituzte: dena arautzearen aldekoa eta dena erlatibotzat jotzen duena. Biak arriskuak dira: gehiegizko agintekeriak hizkuntza hiltzorian edo higitu ezinean utziko du, aldaketak zentsuraturik; erlatibismoak hizkuntzaren birrintzea ekarriko du.

Guztiarekin ere, ahaztu ohi baita, garrantzitsuena ez da hizkuntza —tresna da eta—, komunikazioa baino —jomuga—. Eta komunikazio zereginetarako, bitarteko jarrera onuragarriagoa da. Bateko, errealismotik ulertzea hizkuntzaren muina iraupena dela, hots, hitzunik hizkuntza errealitate aldakorrra moldatzeko egiten dituzten egokitzat-

penak. Besteko, garbizaletasunetik balioestea, mitorik gabe, bai tradizioak eraikitako komunikazio esparrua, bai hizkuntz batasunak eraginkor komunikatzeko eskaintzen dituen erraztasunak. *Hizkuntz batasuna ezin da lortu eskura arau estandar malgurik, hau da, moldatze jardunbide doiturik izan gabe.*

Gaur gramatikariak desegokitzen duena, bihar baliteke erabilera landua eta hitzuntz guztiek onartua. Ez da ahaztu behar erabilera urratzaileak —akatsak— edo gauzakizun dagoen aldaketak (nondik begiratzen zaion) beti-beti izaten duela jatorritzat banako erabilera arau urratzailearen bat. Saussurek berak esan zuenez, ezer ez da sistemara pasako aurretik hitzunik erabili ezean.

#### 4.- Akatsak edo gauzakizun dauden aldaketa batzuk sailka

Arau urragarrien eta arau urratzaileen arteko topaketak etengabe jazotzen dira. Beraz, sailkapenak hizkuntz osagai guztiak hartu behar lituzke. Hala ere, denak ez dira jasoko lerrootan, ezinezkoa baita. Batzuk argigarri izango dira hainbat akats azaltzeko garaian:

##### 4.1.- Semantika antzekotasunagatikoko aldaketa

Antza denez, *mantendu* aditzak eta *mantenu* izenak elikadurarekin zuten zerikusia. *Mantenduren* bigarren adiera zerbaitek bere izateari edo egoerari eustea da, irauten utzi edo iraunaraztea. Gaur egun, hala ere, erdara dela eta, *zaindu* aditzaren eremua ere hartu dute eta *kotxe mantenimendua*, *mantenimendu enpresa*, *hiri mantenimendua* eta abarrek erabiltzen dira.

#### 4.2.- Paradigmaren antzekotasunagatiko aldaketak

*Eman zidazun* eta antzeko laguntzaile arauz kanpokoak ditugu adibide garbi.

#### 4.3.- Aditz laguntzaileen erregularizazioagatiko aldaketa

Euskaraz, diakronian *nor-nori* laguntzailea erabiltzen omen zuten aditzak *nor-nori-nork* bihurtuz doaz.

#### 4.4.- Sintagma gehikuntza errepikakoa

Gero eta gehiago gertatzen ari da gaztele-raz eta geuk, euskaraz, antzera errepikatzen: *gizarte zibila* (gizartea zibila baino ezin da izan), *memoria historikoa* (jakina, ezin da bestelakoa izan), *biktima errugabea* (beti!), *balio iritzia* (iritzia emateak bere du balioz- tatea)...

Beste atal batean agertuko den zerrendan horrelako asko eta asko jasoko dira.

#### 4.5.- Paradigmak hanpatzea

Baliteke beste hizkuntzen eraginagatik izatea, baina aitortu beharra dago, euskara- ren gramatikak ahalbidetzen du-eta, oso ger- taera emankorra dela: *lehentasuna eman, gaia- ri eman dioten tratamendua, ondorioetara heldu, balorazio negatiboa egin...*

Itxuraz, horrelakoak izango lirakeke baz- tertzen errazenak, baina ez da ahaztu behar erabiltzaileek berek erabakiko dutela zein izango den iraunkor eta zein ez. Badago bat, guztiarekin ere, ingelesetik gaztelerara heldu- ta, gure etxean nolabaiteko tokia egiten ari dena, alegia, baldintza erabiltzea *dirudienez, antza denez, omen...* eta halakoan ordez:

*Lehendakaria Kataluniara joango litzateke.* Badirudi baldintza dagoela oinarrian, baina esaldiaren balio modala ez da hori, *Lehen- dakaria Kataluniara joango omen da* baino. Geroak du hitza.

Antzeko zer edo zer jazotzen doa *ahal izan* perifrasiaren edo ahalera bitartezko hainbat esakunetan (gazteleraz ere bai). Ho- rrela:

*halako botoia zapalduta, erabiltzaileak demo bat ikus dezake* → *ikusiko du*

*horren bidez erabiltzaileak argazkien di- seinua alda dezake* → *aldatuko du*

Zer dago horren ostean, beste hizkuntza baten eraginaz gain? *Horror vacui* moduko bat.

#### 4.6.- Teknologia berrien ondoriozko batzuk

Aurreko atalean adierazitakoak ez ezik, auzo hizkuntzetan gero eta maizago agertuz doazen batzuk ere heltzen zaizkigu:

- Sintagma aldaketak. Ingelesaren antzera jokatuta, gazteleraz preposizioak kenduta, mota bakarreko sintagmak sortzen dira, bes- telako aukerak (ulergarriagoak) alhora utzi- ta:

- 3D simulazioak → hiru dimentsioko simulazioak.

- multimedia aurkezpenak → media (bi- tarteko) anitzeko aurkezpena.

- Word dokumentua → Worden sortu- tako dokumentua, Worden dokumentua.

- Buru anglizismoak eta itzulpenak. Hi- tzez hitzeko itzulpen gehienak itzulpen txar- rarak ei dira. Oso ezaguna da kide aizunen kontzeptua, alegia, jatorrizko eta xede hiz- kuntzetan itxuraz antzekoak izan arren, esan- gura desberdinak dituzten hitzenak. Oso ezagun dira:



- silicone → \*silikona → silizioa,
- luxury → \*haragikeria → luxua,
- to save → \*salbatu → grabatu (irarri?),
- actually → \*oraingoan → benetan,
- billion → \*bilioia → mila milioi.

• Lexikoa gainjartzea. Hitz berriak lehen-dik zegoen bat ordezkatzan du eta, ondorioz, termino diafasiko bat, *audioa*, *bideoa*, mezu estandar batean erabiltzen da —teknopedantekeria—. Bideoari gagozkiola, bideo berbak erroak ditu *videre* aditz latindarrean. Izen bihurtu da ingelesez, gazteleraz eta euskaraz ere. Baina ikusirekiko harreman semantikoak galduta dauka, magnetoskopioa izendatzen baitu.

• Anglizismo lexikoak. Besteak beste, *enter* ingeles aditzaren itzulpena beti ez da *sartu* izango, *gehitu*, *emendatu*, *idatzi* eta abar izan daiteke eta.

• Siglak, akronimoak eta laburtzapenak. Informatika eta antzeko teknologiek horrelako asko eragiten ari da: *PC*, *WYSIWYG* (What You See Is What You Get → zer ikusi, hura lortu), *demoa*, *logoa*...

## 5.- Kirolak eta politika

Kirolak eta politika gero eta jarduera garrantzitsuagoak dira. Eta, ondorioz, gero eta nabarmenagoak eguneroko hizkuntzan izaten duten eragina. Apur-apurka kirola norbanakoan jarduera izatetik, beste alor batzuk ere hartzera igaro da: politika, kirol lehia herri lehia ere bihurtuz doa; gizartea, jendetan bilzteko indarra du eta; ekonomia, kirolek ekonomia ondorio ukaezin handiak dituen gero; kultura, kirola kultura eredu itzaltsu bilakatu da. Politikaz, beste horrenbeste esan daiteke, zerrendan egokitzapen batzuk eginda.

La ezari-ezarian, kirolean eta politikan erabiltzen diren esamoldeak eguneroko hizkuntza estandarrera igaro dira. Eta bitarikoak ditugu: jatorritzat euskara bera dutenak *hauteskundeetako azken txanpan* —oso guxti, zoritxarrez— eta kanpotik ekarritakoak —ugariak, aukeran—. Bigarrenak dira batez ere aurrerago zerrendan eskainiko ditugunak. Batzuk mailegu gordinak dira: *asumitu*, bestetarik mailegu semantikoak: *kriston gola sartu diete sindikatuei*.

Kirolen eta horien araudien jatorria anglosaxoia da eta, ondorioz, ingelesaren eragina nagusituz doa. Betiko legez, denborak esan beharko du azken hitza. Hala ere, itzulpen bidez heldutako kide aizun horietako batzuk izango lirake larrienak. Euskaraz, guztiarekin ere, ez dira gazteleraz beste topatzen.

Zer dela eta dute politikak eta kirolak horrenbestearinoko eragina eguneroko hizkeran? Segur aski ahozkotik hurbilen daudenak direlako, ikus-entzunezkoen bitartez hedatzen direnetik. Horrela, biek ahozkotatzen ezaugarriak behinenak izaten dituzte: a) bizitasuna eta malgutasuna; b) lexiko epiko samarra; c) klizeak, topikoak eta este-reotipo semantikoak; d) arrunckeriak eta lagunarteko esatera, eta e) neurritz gaineko in-tonazioa. Beharbada, politikariaren gehitu beharko zaio pedanteriarako isuria, askotan erregistro nahasketa izugarria sortzen duela: oso esamolde landu, tekniko edo kultisten ostean kale gorrikoak ere botatzen dituzte. Komunikabideetan ikusi besterik ez dago zein alorrek hartzen duen tarterik luzeena. Ondorioz, ez da harriztekoa gero eta maizago entzutea denon ahotan. Beste inon esan bezala, hori berez ez da kaltegarri hizkuntzarentzat. Berriki egindako ikerketa ba-

tzuek agertzen dutenez, hizkuntzan errazago aldatzen da lexikoa gramatika baino. Eta gramatikak dirauen bitartean, hizkuntza horren garra pizturik egongo da. Azken buruan, baseritik kalerako ibilbidean, euskaldunik petoenak ere bidean hainbat berba utziko ditu —inguru berrian horrelako adierarik ez dagoelako, tresna zaharrak berriek ordezkatu dituztelako...—. Baita baseritik ateratzen ez bada ere. Idiak tiraturiko gurdia hainbat balbulatuko motoredun traktoreak edo autoak ordezkatu duenean... Mendirik galdue-netan dabilen artzainak berak irratia eroan ohi du! Herioak bizi dakar! Ele batzuk galdu eta berriak bereganatu. Bizi legea!

Bi erregistroetan fraseologiak automatismorantz jotzen du. Bateko, kiroletan narra-tzen dena ia aldatzen ez delako (liga bera, adibidez); besteko, politikarien artean mime-tismo handia dagoelako, partidu bateko poli-tikariek berbaldi bera erabili behar dutelako, legebiltzarrean entzundakoa denon belarrietara heltzen delako. Kiroletako erregistroan maiz jotzen da sinonimoetara: *baloia* → *lar-rua*; *gola* → *puntua* → *tantoa*. Jakina, asko-tan ondorioa izaten da zorrotzazuna galtzea, esaerak lausoago bihurtzea. Baina, beste non-bait esan legez, oraindik guztiz finkatu ez diren aldaketak izan daitezke.

Bi erregistroetan oreka egongaitza izaten da lagunarteko esamoldeen eta txirri-porroen artean. Baina ez modu berean: kirolariak eta enparauak saiatzen dira beren jardueraren gizarte itzala jasotzen eta hizkuntz aukere-tan, gehiegizko balioa eman nahi izaten dio-te, arlote geratzeko edo argot ulergaitza era-biltzeko. Politikariei askotan egokitzen zaie ondo menperatzen ez duten gai baten gai-nean berba egin beharra. Edo herri xehearen aurrean agertu behar izatea. Edota, kirole-

takoen antzera, benetan ez duten maila agertu gura izatea edo atzerriko hizkuntzak dakiz-kitela erakusteko gogoia sentitzea. Nola ere den, horien guztion esanek oihartzun han-dia izaten dute hedabideetan.

Nolanahi ere den, erregistro berezi bat-zuen erabilera ohiz kanpokoek ez gintuzke-te eroan beharko polizi jarrera garbizalea har-tzera, ez derrigorrez, behintzat. Hizkuntza aldatu egiten da, bateko, eta hizkuntzek elka-rrengandik elikatzen dira, besteko. Bai, eus-karatik gutxiago edaten dute auzo hizkun-tzek, baina ez dugu atzendu behar, hala ere, Euskal Herriko lagunarteko frantsesak eta gaztelerak euskararen usaina eta zaporea di-tuztela.

## 6.- Txukuntasunaren izpiritua?

“Txukuntasunaren izpiritua” darabilte argudiotzat garbizale batzuek. Baina zer da txukuntasuna? Kontzeptu estetikoa gehienez ere, zer edo zer izatekotan. “Hiztun garbia” hitzetik hortzera aipatu. Zer da, baina, hiz-tun garbia? Atzera ere beste atal batean aipu-tu genuen inongo ez den hiztunak darabilen inoiz ez inoizko araua. Hiztunak akuilatu nahi ditu garbizaleak, nonbait taldearen artzaina omen delakoan. Baina askotan ardiek sen zoliagoa dute artzainak baino. Ardiak badaki zein belar mota behar duen, zein duen gustukoan, zein atseginen eta zeinek ematen dizkion tripako minak, artzainak berak bai-no askoz ere hobeto. Areago, beren arau eta liburuei herri xeheak behar besteko jaramo-nik egiten ez dielakoan, horrelako gomen-dio-beharkizunak “nor denari” plangintza baten barruan jasotzeko eskatzen diote, agin-te politikoa dela bitarte. Erabateko dirigis-moa hizkuntz kontuetan ere.

Baina baliteke beste ikuspegi bat ere. Zertan zentsuratu jendearen hizkuntz erabilerak? Izan ere, ageri-agerikoa da hizkuntz osagaiak badirautea gizarte gehiengo baten onarpena lortuz gero. Bestela, jai! Denborak beti izango du azken hitza. Euskaraz ertaina ez omen zen ezer, baina nork ez du gaur ia derrigorrezkoa hainbat erregistrotan?

Euskaldunek auzo hizkuntzetatik inportaturiko berrikeriek mugak ezartzen omen dituzte euskaldunon artean, komunikazioa oztopatu edo galarazten dutelako. Baliteke horrela gertatzea, baldin eta euskaldun horiek inolako hizkuntz harremanik ez badute, zeren gauza jakina da bi hiztunek, azkenean, hitz egin ahala eredu iragankor adostua osatzen dutela, direnak direla euren idiolektoak. Azkenena, hizkuntza bera baitarabilte, elkarri ulertuko diote. Beraz, euskaldunek elkarri oztopoak jartzen dizkiotela adierazten dutenean, zer esan nahi dute? Euskaldun horiek ez dutela inongo harremanik elkarrekin edo harreman hori irakurrizkoa baino ez dela. Baina, horrela izanez gero benetan, zein da arazoa? Elkar ikusten ez badute, elkarri berba egiten ez badiote, zein oztopo jarriko diote batak besteari? Bat ere ez. Baina bizi-modutzat berba zerrendak, hiztegiak, eleak dituenak horrelakoei ematen die garrantzirik handiena, apika ahazten duela hizkuntzak bestelako osagai batzuk ere badituela eta joskera (gramatika) hiztegia baino iraunkorragoa dela, aldagaitzagoa. Betiko legez, kontua orekan datza. Dena arautu nahi izatetik erabateko utzikeriarraino oso eremu zabala dago. Gainera, hizkuntzalariek maiz esan dute hizkuntza ezin dela oso-osorik deskribatu. Eta idiolekto guztien berri ematea ezinezkoa dela. Eta ez dagoela hizkuntz arauak urratzen ez dituen hiztunik, inoizko onena

izanda ere, arau urratzetik bizitasuna eta sormena baitatozkio hizkuntzari. Zer dira, askotan, txisteak eta hitz jokoak? Nahita egingako arau urratze bizi eta sendo hutsak!

Oso erraza da ikerlariak hizkuntza zer edo zer monolitikotzat jotzea, ikergaiari horrela hobeto heltzen bide zaiolako, antza. Ez da horrela gertatzen, barren. Eta ia oharkabean, gainera, hiztun bakoitzak bere idiolektoa (zattia) sistema osotzat (batasuna) hartzen du. Baina derrigorrezkoa dugu ondo begi aurrean izatea hizkuntza gauza bizi eta aldakorra dela eta hiztunek berek ezartzen dizkioten mugak baino ez dituela, arau emaeleek esanak esan.

Kontuak kontu, arau ematen hasiz gero, kontuz ibili behar da norberaren gustua, euskalkia edo idiolektoa irizpide ia bakar izan ez dadin. Ezein ikuspuntutatik ere, erabiltzaileek ez darabiltenez landako hizkuntz ereduak arautzat ematea beti arriskutsua da, urte batzuen buruan beste arau-emaileren batek guztiz bestela joka baitezake.

## 7.- Oratoria, erretorika, dialektika eta demagogia

Eta nola gauzatzen da orain arte esandako guztia ahoz jardun behar denean jende aurrean? Zeren horrela defini daitekeen Oratoria hasian-hasi. Hitzaldiak edo diskurtsoak emateko antzea dela dioskute entziklopediek. Gaur egun, maiz gertatzen da lanbide gehienetan jende aurrean hitz egin beharra. Hots, elitekotasuna galtzen hasita dago. Areago, lanbidetik kanpora ere, nor ez da bateko edo besteko elkarteren batean kide? Beraz, askotan, ahoz eraginkor jardutea ezinbesteko baliabide eta baldintza (mugakizuna) bihurtuko da. Zer da astunago, mamia edo itxura,

“zer” esaten den ala “nola”? Inoiz edo behin, mami gutxiko baina azal ederreko hizlariak ateratzen dira gailen ahozko jardunak ondo eratzten badakitelako.

Gero eta beharrezkoagoa izaten ari da lanbide gehienetan komunikazio gaitasunaren jabe izatea. Hasiera batean, edozein hitz-tun landuren zientzi —lanbide— gaitasuna eta komunikazio gaitasuna estu-estu loturik leudeke. Ez da horrela jazotzen, aldiz. Hainbatetan, lagun askoren mintzamina oso urrun dago jomuga horretatik. Ikasketa plan gehienetan, komunikaziorako trebakuntza ez da inon lantzen, ezta maisu-maistrak prestatzeko eskoletan ere.

Ez da harritzekoa gero, lanean hasitakoan, hainbat profesionalen erakunde pribaturen batera jo behar izatea jende aurrean hitz egiten ikasteko ikastaroren bat egitera. Administrazio publiko batzuk ahozko adierazpena lantzeko ikastaroak antolatzen hasi dira.

Ukaezina da jende aurrean diharduten lagun batzuk —irakasleak, kazetariak, politikariak— eredu (nagusia) direla ahozko kotasunari dagokionez. Irakasleei bagagozkio, garrantzi hori ez da islatzen gizarte itzalean, gutxitan aitortzen baitzaie irakasleoi beren zereginaren handia. Gizarte onarpen horren ezean, lagun asko apurka bere buruaren prestakuntza utziz doa.

Giza jarduera asko komunikazio ariketa etengabeak dira. Eta komunikazioaren teoriariek betidanik nabarmendu dute atze elikaduraren garrantzia, alegia, ez dagoela komunikaziorik mintzakideari erantzuteko aukerarik eman ezean.

Kontua da oratoria ia lanbidetzat duten horien esanak on izatea, eduki igorle barik, komunikatzaile eraginkor izatea. Auzia, betiko legez, orekan datza: mamiak ez dio az-

pia jan behar azalari eta azalak ez du axolagabe jokatu behar mamiarekin.

Klasikoen garaian, Oratoria, Erretorika eta Dialektika arte liberalak ziren. Definizio klasikoen arabera, erretorika da hizlariak entzulea erakarri eta hunkitzeko erabiltzen duen antzea. Eskolak ere antolatu zituzten horretan trebatzeko. Dialektika, laburto, eztabaidatzeko antzea genuke. Baina eguneroko bizitzan ez da erretorikaren edo dialektikaren eremuraino joan behar beti: asko da Oratoriaren alorrean geratzea, alegia, ondo hitz eginda, besteak irizkide egiteko antzea. Askotan, horrelako trebetasunen partez, demagogia gailentzen da.

Hizlariak, beraz, hainbat osagai menperatu beharko ditu, trebezia batzuk landu: arnasa ondo hartzea, gorputz hizkuntza (keinuak, begirada, posizioa...) egoki erabiltzea, egokieraren arabera janzkera egokia eramatea, beldur eszenikoa gainditzen jakitea, burua “hutsik” geratzekotan baliabide batzuk izatea eta hitzaldia aurretik prestatu eta antolatzea. Jakina, oinarri-oinarrian bi osagai ezinbesteko egongo dira: zer esanik izatea eta hizkuntz akats nabarmenagirik ez egitea. Bai, begi bistako dirudite bi-biek, baina horiek gabe, gainontzekoek ez dute ezertxo ere balio.


Zergatik, baina, hizkuntz akats nabarmenagirik ez? Akatsek ezinegon sortzen dutelako entzuleetan. Kontu menperatzen gaitza benetan, areago hizkuntz guttiz estandarizatu gabetan, euskarari bagagozkio, ahozkoa delarik ia gutxien arautu den alorra. Eta, oro har, entzuleen arrotzarekiko atxikimendua eta onarpena ahozko kotasunean oinarritzen delako, Glotodidaktikan egindako hainbat ikerketek egiaztatu duten legez. Tokian tokiko hizkera erabili ezean —ia ezinezkoa—, estandar

“itzaltsua” erabili beharko da, onartuena. Era horretan akatsak berebiziko zeregina izango du. Akatsak, gutxien-gutxienik, arreta eramango du edukitik azalera, itxurara. Eten-gabe gertatuz gero, komunikazioa —Oratoriaren helburua— guztiz galaraziko dute.

Zoritzarrez, idazketarekin gertatu bezala, gero eta txarrago idazten da eta, atrebentzia ez bada, gero eta txarrago berba egiten. Baina txarto hori definitzeko, ez darabilgu irizpide garbizalerik, komunikazioa bera baino. Alegia, komunikazio arrakastatsua. Txarto eratutako idazkiak edo berbaldiak nekez lortuko du helburua. Zenbat eta oztopo gutxiago, eraginkorragoa. Eta horrek balio du berbaldia edozelakoa izanda ere.

Arestian adierazitakoaren ildotik aztertu behar da hurrengo atalean eskainiko den zerranda. Jasotariko lekukotasun horietako batzuk oso errotuta daude egungo hizkeran, nahiz eta auzo hizkuntzak —frantsesa eta espainola— jakin gabe ez diren oso ulergarri. Zer dira, baina? Akatsak ala gauzatuz doazen aldaketak?

Adibide bat jartzearren, ulergarria ote da kazetari euskaldun batek idatziriko esaldi hau gaztelera edo frantsesa erreferentzia izan gabe? Hona hemen: *Uda beroa, udazken beroago baten adierazle? Garzon-Mayor Orejaren azken operazioak gradu askotan igo du gatazkaren tenperatura*. Artikuluan barra-barra agertzen dira horrelako esakuneak: *apustu politikoa, mugimendu independentista, tresneria politiko-juridiko-mediatikoa, testuinguru politiko, konponbidea klabe politikoan eman...* Kontua, guztiagaz ere, hauxe litzateke: baztertzekoak dira? Agi denez, denak ez dira munta berekoak, zerrendan bertan egiazta daitekeenez, horietako batzuek euskararen ohiko esamolde batzuk ordezkatu baitituzte. Eta komunikazioari gagozkio-la, erraztu ala oztopatzen dute? Lehen esan bezala, auzo hizkuntzak menperatu ezean, ez dira oso ulergarriak. Baina erabiltzearen erabiltzeaz, azkenean, errotu egin ere daitezke.



**8.- Bilketa**

Segituan agertuko den zerrenda 1998.ean euskarazko irratietan entzundakoen bilduma da. Ez du agortzailea izateko inongo asmorik. Baina, zelan edo halan, komunikabideetara hurbiltzen diren euskal komunikatzaile batzuen erabilera "heterodoxo" batzuen berri ematen du. Esan horietako asko eta asko gramatikari espainiarrek gaitzetsiak dira, baina euskaldunok jaso eta geureganatu ditugu. Akatsak ala gertakizun dauden aldaketak? Hitzunek berek dute hitza. Baina ezin ukatuzkoa da horietako askok eta askok erroak beste hizkuntzetako lur gozoetan dituztela eta euskal esamolde finkatu batzuk ordezkatzera etorri direla.

Letra beltzez eskainitako aukera batzuk nondik nora jo daitekeen adierazteko baliabide xumeak baino ez dira, burura etorri ahala jasotakoak. Ezbairik gabe, beste batzuk izango dira aukeran, hobeak eta argiagoak. Nork bereak eman bitza.

asumitu	bereganatu, bere egin
Ertzaintzaren aktuazioa	jarduna, ekina, ...
berak jokatzeko duen papera	zeregina...
penalki, politikoki...	zigorrei dagokienez, politika kontuetan...
neurriak hartu	zerbait/zer edo zer egin, deliberamendua hartu, erabaki...
lehentasuna eman	lehenetsi
posible da	baliteke...
arropa hobeto geratuko zaizu	arropa hobeto edukiko duzu...
merkatal gune	denda gune...
segimendua egin	adi egon, bilakaeraren jakitun egon...
baloreak aldatu dira	balioak aldatu dira
hilda suertatu da	hil dute, hil da
kidegoan sartu	kide egin, irakasle egin...
aktiboan dago	badihardu, badabil
gaia, tema	mintzagaia, hizpidea, e.a. (testuinguru horretan, gazteleratik jaso baina anglizismoa)
normaltasuna da nagusi	dena normal, ondo
politikoki, juridikoki	gazteleraizko -mente guztiak besterik gabe -ki?

ideia ezberdinak (galizismoa)	<b>hainbat pentsaera, ikuspegi guztiak</b>
legeak aurreikusi	legeak ez du aurreikusten, <b>xedatu, ebatzi</b> egiten du
ministroen mailan	<b>ministroen artean</b>
Gobernutik lortu nahi da	<b>Gobernuak lortu nahi du</b> (oso zabaldua, gazteleraz ere gaitzetsia)
mentalizatu	<b>jabetu, bereganatu, ohitu...</b>
kontzientziatu	<b>konturatu, bereganatu, jakinaren gainean egon</b>
zedituta jokatu	<b>lagata jokatu?</b>
Gobernuak pozik hartuko luke	<b>badirudi, dirudienez, antza denez, omen</b> (ez da benetako baldintza)
ezberdintasun semantikoak	<b>hizkera/hizkuntza ezberdintasunak</b>
bilera amaitutakotzat jo	<b>bilera amaitu, amaitua zela esan/aldarrikatu</b>
nolabait ( <i>de alguna manera</i> )	alferreko makulua, gero eta maizago erabilia, auzokoek erabili ez ezik, zer esan pentsatzeko aukera ere ematen omen duela.
joko zikina	<b>zikinkeria, azpikeriatan ibili, jokaera txar, jokaldi makur, azpijoko, joko txar</b>
epea moztu	<b>epea eten, laburtu</b>
sinesgarritasuna galdu	<b>ez da sinestekoa, nekez sinetsi...</b>
horrelako egoera batean	<b>horrelako egokieran, egokiera horretan...</b>
ordainketaren zatikapena egin	<b>zatika ordaindu</b> (beharrik gabeko abstrakzio ulergaitza)
Lehendakaritzarako proposatu dute	<b>-rako aurkeztu/hautatu, agertu, eskaini</b>
enteratu	<b>jakin, jantzi</b>
planteatu	<b>sortu, asmoa aurkeztu...</b>
hiriko hondakin solidoak	<b>zaborrak, hondakinak</b>
(gerontologi) zentroa	<b>(zahar) etxe</b> (ingelesetik gaztelera bitarte dela <i>center</i> gehiegi heldu zaigu aspaldion)

bere sakelatik atera zuen	askotan «bere» eta enparauak Ø
nolako doikuntzak egin behar dituzun	<b>nola doitu</b>
argi berdea eman	semafororik ez dagoen lekuan?
sorpresa bat izan da	<b>harrigarria izan da, horrek harritu nau</b>
arazoa bideratu ( <i>reconducir el problema</i> )	<b>bestela gauzatu, berriro aztertzea</b>
kolektibo (jendea aipatzeko)	<b>jendea, lagunarte, gizalde</b>
ikasleen mailan ( <i>a nivel de</i> )	<b>ikasleetan, ikasleen artean...</b> (ondo legoke benetan mailak izatekotan, esaterako Administrazioan)
gailurra (bilera, <i>cumbre</i> )	oso jende garrantzitsua bilduz gero, bai, ostera, ez.
terroristen santutegia	<b>aterpe, babesleku</b>
gertutik jarraitu	<b>jakinaren gainean egon (etengabe)</b>
konfidantza osoa	<b>bete-betean fidatu</b>
hiru suspenditu ditut	<b>hiru suspenditu dizkidate</b>
atentatua errebindikatu	<b>egile aitortu</b>
reintertzioa	<b>(ber)gizarteratzea</b>
ministerioa birmoldatzea	<b>aldatu, zaharberritu, egokitu</b>
une historikoa	<b>une gogoangarria</b>
langabezia gerarazi (berba jokoa dirudi)	<b>langabezia murriztu</b>
industri birmoldaketa	<b>berriro antolatzea / arautzea</b>
Ingalaterrak jokatzen duen rola/papera	anglizismo arbuiagarria, <b>zeregina?</b>
positiboki baloratu	anglizismo arbuiagarria: <b>ontzat jo, onartu</b>
aldizkarien errepasoa	<b>aldizkariei begiratua bota</b>
mantendu	<i>mantener</i> eta <i>mantenimiento</i> guztiak <b>mantenduren bitartez derrigorrean?</b>
ikuspegi horretatik	<b>horrela ikusita, horiek horrela</b>
blokeoa partzialki altxatu	<b>debekua alde indargabetu</b>
neutraltzea	<b>indargabetzea</b>
ordutegia	<b>(bi)tarte, ordu tarte...</b>



oinarrizko ( <i>básico, basic</i> )	a) garrantzitsua, b) hasi-masiak ( <i>basic English</i> )
bizia galdu	hil da /hil dute
“halako telefonora deituz alokatu” (gerundioak)	deituta (beste hizkuntzetan gazteleraz baino gehiago baliatzen dira eta erabilera okerrak gailenduz doaz. Euskaraz ere aspektu hori emateko hainbat baliabide izanda, ezbeharreko kalkoak egin ohi dira)
balantzea egin	balioetsi, balioztatu...
nire kaligrafia txarra da	idazkera
kanpus	zertan erabili ia gazteleraz baino ez darabilten izendapen hori, gainera deklinatzeko orduan arazo ugari dituela? zelaia, alorra, esparrua, barrutia...
balorazio positiboa	ontzat jo du, ondo hartu du...
selektzioaren gaia	selektzioa hizpide darabilgula
horrelako kasuetan	horrelakoetan
kasuan kasu	egoeraren arabera...
zozketan sartu zara	esku hartuko duzu...
lanaren munduan	zer esan nahi du <i>mundu</i> berbak hor?
gerri politikoa	gaztelerarik jakin gabe ulergarri ote?
errepasso txiki	erdal <i>pequeño</i> guztiak besterik gabe <i>txikiren</i> bitartez?
ze irakurketa egiten duzu?	zer deritzozu?
berria filtratu	kalko nabarmenegia
nekatu bezala dago	<i>como inminente</i> eta abarrak ez omen dira zuzenak gazteleraz. Euskaraz?
konpromisoa	gazteleraz <i>compromiso</i> eta <i>acuerdo</i> ez dira berdinak, baina nahastu egiten dituzte. Berdin gertatuko ote zaigu?
testuingurua	eremu, alor, baldintza, egokiera...
liburuaren kopia /aldaki batzuk	anglizismoa: ale
kulpabilizatu	norberaren burua erruduntzat jo

(hitzaldia, ikasgaia) garatu	hitzaldia eman, jendaurrean hitz egitea
Gobernua halako legetik desmarkatu da dinamizatu	ez duela zerikusirik izango adierazi du bultzatu, suspertu...
matrikulaziorako prozedura	nola matrikulatu...
gaur da eguna	gaur egun
gaia/hitzaldia/liburua... landu	<i>elaborar</i> gazteleraz ere gehiegi, koadroa <b>pintatu</b> , hitzaldia eman...
jokoan egon	ondo <b>interesak</b> , txarto <b>proiektuak</b>
finantza erakundea	ez omen dira berdinak: <b>kutxa</b> , <b>banka erakundea</b> eta <b>finantza erakundea</b>
ekipamendua (hornidura)	ez da tresnen edo <b>materialaren</b> sinonimoa
zer aldarrikapen egingo zenuke	<b>zer aldarrikatuko</b> (berriro ere ezbeharreko abstrakzioa, ulergaitzagoa).
azken orduko albistea	ez da erdararik jakin gabe ulertzen. <b>Labetik harako ogia</b> eta antzeko esamoldeak daude <b>zer gertatu berri den</b> azaltzeko.
hor dago arazoa	<b>hortxe dago kakoa</b> , <b>horixe da gakoa</b>
fidagarria segur ua	gauza = <b>segurua</b> , pertsona = <b>fidagarria</b>
lege horren filosofia	pedantekeria, legearen <b>oinarriak</b> , <b>hastapenak</b>
finantzatu	ez da amortizatzea, gastuak ordaintzea baino
bere momentuan, bere egunean ( <i>en su día</i> )	<b>inoiz</b> , <b>noizbait</b> , <b>halako garaian...</b>
hauteskunde prozesuan	<b>hauteskundeetan</b>
finantza aparatu	gaztelerarik jakin ezean, nekez ulertzekoa
gauza puntualetan, aldaketa puntualak	<b>jakinak</b> , <b>zehatzak...</b> (galizismoa)
gehiengo soziala	<b>herritar gehienak</b> , <b>ia gizarte osoa...</b>
neurri batean	<b>aldez</b> , <b>bateko</b> , <b>zelan</b> edo <b>halan...</b>
irakurleei zuzentzen zaie	<b>irakurleei esan</b> , <b>jakinarazi...</b>
adostasunera helduko garela	<b>ados jarri</b> , <b>bat etorri</b> , <b>elkar hartu...</b>

kentzea posible izango da	ken daiteke / liteke
iraultza handia ekarriko du	guztiz irauliko du
diru kopuru, jende kopuru	aukeran dirutza, diruak, jendetza, lagunak, giza-dea... eta ere badira.
laguntza horren ordainketa iraukitzea	ez ordaintzea laguntza hori
haur bat aurkitzen da kabinan	jaso dugu / dute..., dago, da
informazio murrizta daukate	gutxi dakite
bide onetik joan	ondo abiatu da
udal guztien artean banatuko du	nori berea (bakoitzari zati bana, bestela?)
metodologia metodoak	metodologia = zientzia, ikerketa bateko metodo multzoa
horrek esan nahi du	beraz, ondorioz...
«Gero», Axularren liburu ezagun bat, (anglizismoa)	«Gero», Axularren liburu ezaguna,
bere balorazioa eman zuen	iritzia eman zuen (gaztekeraz ere delako balorazio hori iritzia baino ez da)
aldeko balorazioa (positiboa)	onartu, onetsi...
kontrako balorazioa (negatiboa)	gaitzetsi
idatziz zuzentzen natzaizu (gutunean)	gerundioa beharrezkoa ote? Zuzendu partez, «gutun honen bitartez adierazi nahi dizut» edo antzekoren bat.
bere mugak jartzen ditu	mugatzen du
politikan parametro berri bat sartu	politikarien hizkera kriptikoa
morrontzan erori	morroi bihurtu
lan hori aitzina (aurrera) eraman	lana bururatu
orkestra gidatu	zuzendu, agindu (anglizismoa)
kalitatearen kulturaren murgildu	hanpatuegia ote?
prozesua	gaur egun gauza guztiak prozesu bihurtu dira: jardunbidea, ekinaldia...

talde horren azken arrakastak	plurala ote? Mitxelenaren hiztegian ez.
arazo horri dagokionez	dena arazo bihurtu da (gazteleraz ere), hori dela eta...
gertaera horren erruagatik	gertaeragatik, gertaera dela bitarte...
egia esan	antza denez ala benetan? (anglizismoa askotan: <i>really</i> )
gai	gazteleraz <i>tema</i> gehiegi. Ezinago egoki esaten zaio temati beti tema/gai berarekin dabilenari.
aldez aurretik	gehiegi erabiltzen ote?
agente politikoak	politikariak, partiduak
alkatea oso itxia zegoen	uzkur
jarraitu irau	irau eta antzeko aditzak eremu guztietatik desagertzen ari dira jarraitu dela eta
gaiz aldatzeko	berbetari utzi, solasa utzi, beste hizpide bat erabili...
alerta egoeran egon	erne, zur egon
tratu gogorrak, txarrak	gogor, txarto erabili...
aurrerapauso handia izan da (anglizismoa)	aurreramendu, aurreraka handia...
minutu batean kontatuko dizuegu	hemendik minutu batera, minutu garrean...
maitasuna egin	hainbat, erregistro guztietakoak (galizismoa)
ahalegin handia suposatzen dio	neke du zeregin hori
ez diot zentzurik ikusten	nire urtez ez dauka ez bururik ez hankarik
hilik gertatu da	hil da
proposamen bat luzatu	zerbait aurreratu, eskaini
azpimarratu nahi dut (ahoz)	nabarmendu nahi dut
Euskaltzaindiak egoitza ireki	jarri, kokatu...
ondorioetara heldu	ondorioztatu
gaia sakondu	areago, sakonago, hobeto... aztertu
horren funtzioa zer den...	zeregina, ...-rako balio du
zentzu horretan,	horretaz, horren gainean...

hamalau gradutan gaude	hamalau gradu ditugu
printzipioz	hasteko, hasian-hasi
hirugarren adina	adinekoak
sistematikoki	aukeran, arauz...
alternatiba, hautabidea	neurritz erabili (angliz. → galiz.)
area, alorra (angliz. → galizismoa)	? beti ez da beharrezkoa Kirol (Alorr)a
datu, odol... banku (angliz. → galizismoa)	datutegia, datu gordailua
aukera ezin hobea da (angliz. → galiz. <i>oportunidad</i> )	egokiera...
irizpide ekonomizista	ekonomi irizpide
egilearen filosofia	pentsaera, pentsamoldea, ustea
baldintza fisikoak	sasoian egotea
egoera errepasatu	egoera aztertu, egoeraz gogoeta egin, zertan den aztertu
lerro nagusiak	gaztelerarik jakiteke, iluna.
gonbidatuta geratu zara	gonbidatuta zaude
subjektu politikoa	zer esan gura du?
hurbildik jarraitu Irlandako egoerari	egoeraren jakitun egon erabat
auri arriskua dago	auria egin lezake
zerbitzu profesionalak (anglizismoa)	askotan ez da batere beharrezkoa: iturginaren zerbitzuak?
arazo zehatzak, jakinak	askotan, arazo hutsak dira. Beraz, zertan esan zehatza ( lausoa) ?
askapena exijitu	gazteleraz exigiri instar askatzeko eskatu, galdatu
mediatikoak	komunikabide-
erabiltzaile	<i>usuariola</i> herritar, irakurle, kirolari... izan daiteke, zergatik beti erabiltzailea?
gainbizitzea lortu du	zelan edo halan aurrera atera, nekez bizitzea, bizi-rik dirau

lau hitzordu nabarmendu	!!! (elkargune, ekintza, ospakizun...)
irakurlego zabalarentzat idatziak	<b>mota guztietako ,orotariko irakurleentzat</b>
irakurketa itxia	gaztelaririk jakin gabe, nekeza.
elebitasunaren istorio hori	benetan ote da istorioa horrelako autu bat?
gure lehiatzaileen zerrendara zoaz	<b>izena zerrendan jasoko dizugu</b>
plana garatu	adituek baino ez dute ulertzen
konpromezua / konpromisoa hartu	<b>konprometitu, hitz eman</b>
sakonera kulturalako proiektua	!!!
arazo (anglizismoa)	beti ez da txarra. Ikus <i>Erdarakadak</i> . Gehiegi erabiltzen da. Aukeran, beste hitz batzuk: <b>kontua, afera, jazoera, eztabaidagaia, saltsa...</b>
mantenimendu enpresa	Kontuz! Beti ez dauka zerikusirik mantentzearen ohiko esangurarekin.
legalitate minimo bat	!!!
Lertxundiren azken nobela	<b>nobela berria ote?</b>
eskuhartze hipotetikoa	<b>esku har lezakete</b> (antza, dirudienez...)
indar abertzaleak	ulergaitza gaztelaririk jakin ezean.
ehun puntutan salgai	<b>ehun saltokitan eskuragarri</b>
orrialdea pasatzearen alde	!!!
kazetariak ematen dioten tratamendua	<b>gaia nola lantzen duten</b>
gizartearen izpiritua, Ermuko izpiritua	!!!
sei gol sinatu ditu	!!!
hizkera politikoki zuzena	???
arreta deitu	<b>arreta hartu, arreta erakarri,</b>
azkenik esan bi istripu gertatu direla	<b>amaitzeko, azkenik... bi istripuren berri emango dugu</b>
horretaz aparte	gero eta gehiagotan, gainontzeko baliabideak (ez ezik ... ere) ahaztuta.
kasua (juizioa)	<b>auzia, auzigaia</b>

inkesta bat egin da gazteen artean

gazteei galde sorta egin diete

polizi operazioa

poliziaren ekintza,

unerik goxoen

*momento más dulce!*

...

...

Horrelako zerrenda bat eskaintzean, diagnosi moduko bat baino ez da egin gura izan. Behin baino gehiagotan idatzi legez, hiztunek, erabiltzaileek aukeratu beharko dute zerekin geratu. Gauza ondo jakina da egun jator-jatorizat jotako hainbat hizkuntz osagai,

garai bateko mailegu irentsiak baino ez direla. Horiek erabiltzen hasi ziren euskaldunok hasieran harrimena ere sortuko zuten, arbuioa ez bazen. Baina dabilen harriari goroldiorik ez zaio batzen, ezta dabilen hizkuntzari ere.



## 9.- Ondorioak

Kontuak kontu, gehiegi erratzeko beldur handirik gabe esan genezake oso auzi labai-naren aurrean gaudela. Baina ez aztertzen dihardugun jazoeragatik beragatik —hau da, hizkuntza aldakorra denez gero, etengabe sortuz doazkio arautik aldentzen diren osagai berriak—, jazoera horren aurreko jokabi-deengatik baino. Aspaldi honetan euskarari halako fundamentalismo garbizale bat dago indarrean. Kontua, berez, ez lihoake urrunegi jarrera horiek erabakimenik izan ezean. Baina, zorigaitzez, horrelako jarrera garbiza-leak, lexiko zein joskera aldetikoak, dituzte-nek akademia ofizialean arauak emateko ahalmena dute. Eta ondorioz, benetan dabilen euskarari mugak jartzekoa.

Bestaldean, gainontzeko berbetetan legez, ia erdi ezkutuan euskara gero eta eremu gehiagotan erabiltzearen ondorioz, usuago gertatzen da arau urradura, inoiz edo behin axo-lagabekeria hutsagatik edo hizkuntzaren bar-ne ahalbide guztiak ondo ez menperatzearen. Arestian eskainitako zerrendan jasotako esamolde, hitz edo dena delako horietako batzuk erabili izan dira “kolorea” edo “zaporea” ematearren. Baina, zelako zaporea? Horra hor korapiloa! Erdararik baino dastatzen ez den zaporea. Baina, inondik inora, baliteke zerrenda horretako batzuk urteak joan, urteak etorri gailentzea eta, ondorioz, euskal zapore jator bihurtzea.

Ahozko —eta idatzizko— erabilerei dagokienez, lasai askoan esan daiteke erruga-beak lehenengo harria botatzea daukala, hau da, hitz egiteak berezko duela akatsa. Akats guztiak ez dira, jakina, munta berekoak. Eta akats guztien ondorioak ez dira beti berdinak izaten.

Idaztea edo hitz egitea pentsatzea da, eta gogoeta ez da gramatikalkeriaren edo dena-arautu-nahiaren espetxean giltzaperatu behar. Arauek biziari eusteko balio badute, ezinbes-teko direla esan ere liteke. Baina bizirako mugarriak izanez gero, laster batean esan beharko genuke hildakoa osasunez ondo dagoela.

Hizkuntza aldatu egiten da. Norberare-na ere ez da beti bera. Non amaitzen da sormenaren eremua eta non hasi akatsaren alorra? Bitxia da nola arau-emailerik petoetak ere hanka sartzen duen egiaztatzea, besterik ezean, ezinezkoa delako euskara guztiak —aldaki guztiak— ondo menperatzea. Jakina, horrelakoetan ere, astunagoa da guztiz garbia omen denaren hobena.

Aspaldion hitzetik hortzera darabilgu kalitatezko euskararen auzia. Zelako kalitatea, ordea? Gramatikarena eta lexikoarena? Euskalkiena? Estandarrarena? Kalekoarena? Baserrikoarena? Hizkuntza aldakorra bada, kalitate irizpideak ere aldakor behar luke, ezta? Euskara osorik definitzerik ez dago. Kalitatea baino kontzeptu lausoagorik zientzietan! Beraz, zeri ez dakiola geundeke! Aukeraren maukeran dago aberastasuna, baina aukeratzek beti dakar gaitzetsiaren galera. Gaurko euskara ez da aurreko mendetako, arau-emaille batzuen iritziak iritzi eta apetak apeta. Hizkuntzaren kalitatea eta hizkuntza bera mehatxaturik daudela esatean, zein balizko euskaraz ari gara? Inongoa ez denaz? Inoizkoa ez denaz? Norberarena ez denaz?


Hizkuntza batez ere ahozkoa dela ahaztuta, arauak ematerakoan idazki bitartezko corpusak hautatu ohi dira lekukotasun fidagarriagoak ei direlako. Aurreko mendei dagokienez, ezberrik ez, hitzun guztiak hilda daudenez gero. Baina gaurko euskara hizpi-



de, zergatik bazter utzi ahoz gailendu den osagai “zikina”—erdarakada— beste garai bateko forma idatzia “garbiaren” aldean? Bizkaieraz, esate baterako, hiztun askok darabilten otezko “erdarakada” —bentan(e)a— hori ez da euskara? Zertan dabilta, orduan, hiztunak? Ez ote dute senik?

Eta lanbide jakinetako euskaldun “landuek” beren eremuetarako aukeraturiko for-

ma okerrek —beren laburrean nolabaiteko bidea eginda izan arren— egunetik egunera bazter utzi beharko? Zeren izenean uka dakiok hiztun bati, demagun, “motoa” erabiltzea, nahi izanez gero? Beste hiztunek esango dute azken hitza. Besterik ezean, beste inork erabiliko ez duen bitxikeria litzateke. Baina gizakiaren eskubideen artean, adierazpen askatasuna ere ei dago, ala ez?



Sarreran esan bezala, garbizaleen iritiz, hizkuntza beti egoten da arriskuan. Bestekoez, denak balio du. Ba ote dago erdibiderik erabateko arautzearen eta guztizko askatasunaren artean? Segur aski erdibide hori jomuga, asmo hutsa da, gune ondo mugatu eta definitu baino. Baina denok horra jo gura izanez gero, ez litzateke elkargune txarra, bestalde. Egungo hizkera erabiltzearen, elkargune "birtual" —inongoa ez den— horrek bi ezaugarri izan beharko ditu: komunikazioa eraginkor eta arrakastatsurako bide izatea, batetik eta, bestetik, euskararen legeak erabiltzea. Eta badirudi hizkuntzaren sena, barne legeak, lexikoaz harantzago doa zela, hau da, barne legeak —gramatika— aldagaitzagoak direla lexikoa bera baino.

Barne arauok moldatuz doaz urteak —mendeak— joan, urteak —mendeak— etorri. Printzeak sailkaturiko eta definituriko euskalki horiek oso gauza gutxitan datoz bat gaur egungoekin. Artikulu honek ez du helburutzat auzia guztiz garbitzea, oso eremu zabala baita jardunaldi bakarrean agortzeko. Demagun beti izango dela beharrezkoa arautzearen bat ematea. Zein arau mota, baina? Zorrotzegiak inora joan ezinik utz dezake hizkuntza. Araurik ezak, barren, noraezean! Gehiegi babestu —arautu— nahi izateak, benetan laguntzen dio hizkuntzari hobeto irauten, edo, haurrekin legez, babesgabeago bihurtzen? Zer jatzotzen zaio gehiegi jagondako umeari gurasoak desagertutakoan? Ze euskara mota gura dugu? Indartsua, nahiz ezaina izan, ala ederra baina ahula, babesaren babesez?

## BIBLIOGRAFIA

Agencia EFE (1991), *Manual de español urgente*, Madril, Cátedra.

Gaspar GARROTE BERNAL (1995), *Ensayos sociolingüísticos*, Madril, Ediciones UEM-CEES.

Juan GARZIA GARMENDIA (1997), *Joskera lantegi*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz.

Santiago A. LÓPEZ NAVIA (1996), *La formación retórica del profesor*, Madril, Ediciones UEM-CEES.

Fernando LÁZARO CARRETER (1997), *El dardo en la palabra*, Bartzelona, Círculo de lectores.

Miren Lourdes OÑEDERRA (1998), "Ahoskera eta arauak. Arauak eta ahoskera", *BAT sozio-linguistika aldizkaria*, 27. zbk., Donostia.

Ibon SARASOLA (1997), *Euskara batuaren ajeak*, Irun, Alberdania.

J. R. ZUBIMENDI, P. ESNAL (1993), *Idazkera-liburua*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz.